

INFORMAZIO-OHARRA, GRADUKO ETA GRADUONDOKO IKASKETEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, 2020KO ABENDUAREN 18KOA, 2020/2021 IKASTURTEKO LEHEN LAUHILEKOAREN EBALUAZIOARI BURUZKOA, PANDEMIAREN EGUNGO EGOERA KONTUAN HARTUTA.

Dakizuenez, 2020/2021 ikasturteko plangintza akademikoari ekin genionetik, gure aukera izan da jardun akademikoan presentzialtasunari ahalik eta gehien eustea, osasun egoerak eskatzen dituen prebentzio eta babes neurrien barruan betiere.

UPV/EHUko Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordearen 2020ko urriaren 9ko Ibiltorrian, konfinamendu egoeretan gradu eta masterreko irakaskuntzak irakasteari eta ebaluatzeari buruzkoan, zehazten zen nola antolatu behar diren ebaluazio probak.

Bertan gogoratzen zenez, normalean etengabeko ebaluazioak eta aurrez aurreko modalitateak izan behar dute lehentasuna, baina ebaluazio ez-presentzialerako aukera bat egon behar da COVID-19aren ondorioz hala behar denerako.

Horrela, ebaluazio proba egin behar den egunean ikasleren batek egiaztatzen badu ezin dela ikastegira joan proba aurrez aurre egitera COVID-19a dela eta, modua eman beharko zaio ebaluazioa egiteko. Kasu horretan, irakasgaiaren ardura duen sailak bi aukera izango ditu: edo gainerako ikasleen egun eta ordu berean egin, baina modalitate ez-presentzialean edo on line, edo, bestela, beste proba bat egin, aurrez aurre, beste egun batean, azterketen epe ofizialaren barruan edo epe hori amaitu eta hamar egun naturaleko epearen barruan, gehienez ere.

Era berean, COVID-19a dela eta irakaslea ezin bada ikasleekin aurrez aurre egon ebaluazio egutegi ofizialean probarako zehaztuta dagoen egunean, baina bajaran ez badago, irakasgai hori ematen duten beste irakasle batzuk egongo dira proban (edo, halakorik ez badago, sailak horretarako izendatuko dituen beste irakasle batzuk). Kasu horretan, ezin etorria duen irakasleak BBCren bidez egin ahalko dio jarraipena probari, eta sortzen diren zalantzak argitu. Irakaslea bajaran balego, irakasgaiaren ardura daukan sailak halakoetan ohikoak diren neurriak hartuko ditu.

Bestalde, ikasturte hau hasi zenetik igarotako hilabeteetan, ikusi dugu unibertsitatea ingurune segurua dela bertako kide guztiontzat, baina gaur-gaurkoz Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera oso delikatua da COVID-19aren kutsapen tasari eta ospitaleen presio egoerari dagokionez.

Kontuan hartuta zein sasoitan gauden, eta laster hasiko direla neguko oporrak –zeinetan harreman sozialak ugariagoak izaten diren, horrek dakarren kutsapen arriskuarekin– eta oporren ostean ohiko deialdiko ebaluazio probak hasiko direla, beharrezkoa da unibertsitateko kide guztiok ahalik eta kontu gehienaz ibiltzea datozen asteetan, hartara azterketak behar bezala egin ahal izan ditzagun.

Gogoratu unibertsitateko kide guztiok -ikasle, irakasle-ikertzaile nahiz administrazio eta zerbitzuko langileok- hartu behar ditugula behar diren neurri guztiak COVID-19a ez hedatzeko eta geure burua ere arriskuan ez jartzeko. Era berean, guztiok bete behar ditugu osasun agintariek COVID-19a kontrolatzeko unean-unean ezartzen dituzten prebentzio, segurtasun, osasun eta higiene neurriak.

Araceli Garín Martín
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordea